2003-IV-4
Número **102.** zenbakia

ELA

# astekaria

## EDITORIALA

### Gauzak aldatzen ari dira

Amaitu da Gipuzkoako Metaleko grebaren lehen fasea, eta oraingoz ez dago hitzarmenari buruzko akordiorik. Gipuzkoa osoko egun beteko deialdiaren ondoren, asteon eskualdeka izan da greba, eta jokabide berria izanagatik, emaitza oso ona izan dela uste dute Metal federazioaren arduradunek, hitzarmenak eragina duen lantegietako jendearen %80tik gora atera baita kalera.

Eskualde mailako manifestazio handiek ere islatu dute deialdiaren arrakasta. Deban, batez ere, kooperatibetako langileak ere izan dira hitzarmenaren aldeko borrokan. Orain, apirilaren 10 eta 11n lehen egunean bezala Gipuzkoa mailan deituta dagoen greba da hurrengo erronka.

Bien bitartean, Adegik ez du erantzunik ematen, behar bada uste izanik gauzak bere horretan uzteak, egoera usteltzeak, behar bezala negoziatu gabe hitzarmena ixteko aukera izango duela, beste noizbait gertatu izan den moduan.

Enpresaburuen elkartea agian ez da konturatu, ordea, gehiengo sindikala orain bat eginda dagoela eta langileek ez dutela edozein hitzarmen ontzat emango.

## Gipuzkoako metal eta papergintzan benetako hitzarmenaren aldeko borrokan ari dira

# LAN-EGOERA HOBETZEKO GREBAK

Negoziazio kolektiboa albiste dugu, hego Euskal Herri guztian gainera: Greban daude Arabako eta Bizkaiko hirugarren adineko egoitzak, Bizkaiko bidaiarien garraioak, baina langile gehien Gipuzkoako papergintzako eta metaleko gatazkan ari dira mugitzen. Paper sektorean deitutako grebarekin lantegi eta 1.500 beharginek bat egin dute, eta metalgintzan hitzarmenak eragindako langileen %80ak jo du aste honetan grebara, astelehenez Urola-Kosta eta Oria-Goierri eskualdeetan, asteazkenez Oarso-Bidasoa eta Donostialdean eta ostiralez Deba eskualdean.

Gipuzkoako grebetan Adegiren jarrera setatia begibistakoa da: Jose Mari Larrañaga Metaleko idazkari nagusiak dioen legez, "patronala ez da benetan negoziatzen hasi; azken bilerako eskaintza egin –%3ko soldata igoera erreala eta lanordu bat ere ez jaistea– eta gure eskaria ezin negoziatukoa zela esanez alde egin zuten".

Benetako edukia izango duten hitzarmenak helburu, metaleko hurrengo greba egunak apirilaren 10 eta 11rako daude deituta. Orain artekoa ikusirik, langileen erantzuna ona izango dela aurrera liteke.

*(4. orr.)*



*Irudian, joan den astelehenez Tolosan metal eta papergintzako langileek egin zuten manifestazioaren une bat.*

# DERECHOS SIN EXCLUSIONES

A raíz de la sentencia del Tribunal Supremo que determina la ilegalización de Batasuna, los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE e HIRU han suscrito un documento en el que denuncian dicha decisión política, por ser un "escandaloso ataque contra el derecho de participación política y las garantías jurídicas". Las organizaciones sindicales afirman: "no nos resignamos al actual bloqueo ni renunciamos a construir una solución", y añaden: "Pensamos que privar de expresión política a sectores de la sociedad o actuar contra personas y grupos para impedir o restringir su participación política no ayuda a resolver los problemas".

El documento, que será repartido por los firmantes en empresas y centros de trabajo, concluye diciendo que "es hora de que todos los ciudadanos y ciudadanas vascas, en toda Euskal Herria, tengan garantizados todos los derechos".

Para los sindicatos firmantes, "esto es algo más que una reivindicación, más que un deseo: es un eje referencial, normativo y estratégico". Con el fin de manifestar esta denuncia y esta reivindicación, delegados y delegadas de estos sindicatos se concentrarán el próximo 15 de abril en Donostia.

*(ver documento en pág. 2)*

Aukeran
ELA
Babesik sendoena

## Apirilaren 15ean, ordezkarien bilkura Donostia

## TODOS LOS DERECHOS PARA TODAS LAS PERSONAS




## Por el derecho de participación política

# TODOS LOS DERECHOS, EN TODA EUSKAL HERRIA, PARA TODAS LAS PERSONAS

El Tribunal Supremo ha ilegalizado a un partido político. La sentencia que lo ha decidido es a todas luces algo más que un fallo judicial. Es una decisión política, en la medida en que cumplimenta la estrategia marcada por el pacto antiterrorista para el conflicto vasco, cuyas directrices y consignas ejecutan concertadamente instituciones del estado y agentes afines.

La ilegalización de Batasuna ha venido prologada por la suspensión de actividades decretada por el juez Garzón y, lo que es aún más grave, si cabe, hay motivos para creer que venga seguida de la ilegalización o proscripción de cualquier expresión política y/o electoral que entiendan sospechosa de ser referente para el sector de la sociedad vasca que Batasuna ha representado políticamente. Es, al menos, lo que de forma inequívoca han anunciado los portavoces del poder español, que ven favorecida su estrategia de dominación pura y dura por el actual clima global autoritario, militarista y restrictivo de derechos.

La estrategia de la ilegalización no se limita, por tanto, a dejar fuera de juego a Batasuna. La decisión de fondo es la de negar expresión electoral a un espacio arraigado en la sociedad vasca, un espacio que comprende reivindicaciones, opciones ideológicas, proyectos, solidaridades, identidades tejidas a lo largo de mucho tiempo, compartidas por muchos ciudadanos y ciudadanas.

Las organizaciones firmantes denuncian esta coacción inadmisible, este escandaloso ataque contra el derecho de participación política y las garantías jurídicas. Porque no todo el mundo tiene la obligación de ver el conflicto con las gafas del pacto antiterrorista y las libertades políticas amparan también el derecho de la ciudadanía y sus organizaciones a tener aspiraciones no contempladas en los ordenamientos vigentes. Hoy por hoy, sin embargo, sobre quienes apoyan determinados proyectos o ideas, reivindican los derechos de las personas presas, denuncian torturas y malos tratos o simplemente se comprometen en la promoción del euskara, se cierne la presunción de colaboración o pertenencia a banda armada. La presunción de culpabilidad está tomando el lugar de la presunción de inocencia.

Los sindicatos firmantes de esta declaración creen que Euskal Herria tiene derecho a políticas basadas en las experiencias de resolución democrática de conflictos de otros lugares y en el respeto de principios y derechos democráticos individuales y colectivos.

Las organizaciones firmantes no nos resignamos al actual bloqueo ni renunciamos a construir una solución. Pensamos que privar de expresión política a sectores de la sociedad o actuar contra personas y grupos para impedir o restringir su participación política no ayudan a resolver los problemas. Afirmamos, por el contrario, que todas las personas y organizaciones, sin exclusión, deben tener garantizados sus derechos de representación y participación política; por respeto a los derechos de todas las personas, y por imperativo democrático, como requisito necesario de climas políticos y escenarios electorales normalizados.

Los sindicatos firmantes, en esta encrucijada, hacemos un llamamiento a los trabajadores y trabajadoras a hacerse cargo de esta situación. A hacer frente a este retroceso de libertades y derechos democráticos, y a tomar posición en la defensa del pluralismo político y el derecho a la participación política. Los derechos fundamentales no pueden depender de coyunturas políticas.

Es hora ya de que todos los ciudadanos y ciudadanas vascas, en toda Euskal Herria, tengan garantizados todos los derechos. Para los sindicatos firmantes esto es algo más que una reivindicación, más que un deseo: es un eje referencial, normativo y estratégico.

**ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU**

## Parte-hartze politikorako eskubidearen alde

# HERRITAR GUZTIOK ESKUBIDE GUZTIAK, HERRI OSOAN

Alderdi politiko bat legez kanpo jarri du Auzitegi Gorenak. Ezbairik gabe, erabaki judizial hutsa baino zerbait gehiago bada epaileen ebazpen hori: erabaki politikoa da. Izan ere, euskal gatazkarako itun antiterroristak ezarri duen politika berretsi egiten du, itun horren irizpideak eta aginduak elkarrekin ados jarrita egikaritzen baitituzte Estatuaren erakundeek eta enparauek.

Batasuna legez kanpo jarri aurretik erakunde horren jarduerak bertan behera uzteko agindu zuen Garzon epaileak. Bada nahikoa motibo okerragorik ere gerta daitekeela uste izateko: legez kanpo edo debekupean jar ditzakete Batasunak politikoki ordezkatu duen gizarte-sektorearentzat –euren susmoen arabera– erreferentzia izan daitezkeen adierazpen politiko edo elektoral guztiak. Hori iragarri dute, bederen, espainiar boterearen bozeramaileek argi asko, zeinek egungo giro autoritario, militarista eta eskubide-murriztaile honetan agintekeria hutsaren estrategiarentzako giro egokia topatu baitute.

Batasuna jokoz kanpo uztea ez da, beraz, legez kanpo uzteko estrategiaren amaiera. Sakoneko asmoak urrutiago du helmuga: euskal gizartean sustrai sakonak dituen korronte bat, denbora luzean zehar moldatu eta herritar asko eta askoren onespena duten aldarrikapenak, irizpide ideologikoak, proiektuak, elkartasunak, nortasunak... biltzen dituen korrontea, adierazpide elektoralik gabe uztea.

Idazki hau izenpetzen dugun erakundeok biziki gaitzesten dugu bortxa onartezin hori, parte-hartze politikorako eskubidearen eta berme juridikoen aurkako eskandaluzko eraso hori. Gatazkari begiratzeko ez baikaude denok itun antiterroristaren betaurrekoak erabiltzera behartuta. Askatasun politikoek babestu egiten dute –hain justu– herritarrek eta hauen erakundeek indarreko ordenamendu politikoarekin bat ez datozen helburuak izatea. Gaur egun, alabaina, talde armatuko kide edo laguntzaile izatea egotz diezaiekete proiektu edo ideia jakin batzuk bultzatzen dituztenei, presoen eskubideen alde dihardutenei, torturak edo tratu txarrak salatzen dituztenei edo –besterik gabe– euskararen alde lanean dabiltzanei. Errugabetasun-ustearen ordez erruduntasun-ustea ari zaigu nagusitzen.

Agiri hau izenpetzen dugun sindikatuok uste dugu beste zenbait lekutan gatazkak demokratikoki konpontzearren egindako bideetan oinarria duten politikak zor zaizkiola Euskal Herriari, printzipio eta eskubide demokratiko guztiak –norbanakoenak zein kolektiboak– aintzat hartzen dituzten politikak.

Agiria sinatzen dugun erakundeok egoera blokeatuta egonagatik ez dugu amore emango, konponbideak bilatzeari ez diogu utziko. Gure ustez, arazoak konpontzeko modua ez da gizartearen atal batzuk adierazpide politikorik gabe uztea, ez eta herritar edo taldeen aurka jotzea ere, hauen parte-hartze politikoa mugatu edo galazte aldera. Aitzitik, uste dugu herritar guztiei –salbuespenik gabe– bermatu behar zaizkiela ordezkaritza eta parte-hartze politikorako eskubideak: batetik, herritar guztien eskubideak aintzat hartu beharra dagoelako; bestetik, demokraziaren arauek hala agintzen dutelako, giro politiko eta elektoral normalizatuek hala eskatzen dutelako.

Bidegurutze honetan, agiria izenpetzen dugun sindikatuok honako deialdia egiten diegu langileei: lehenbizi, egoeraren larritasunaz jabe daitezen; bigarrenik, eskubide eta askatasun demokratikoen murrizketa honi aurre egitera, aniztasun politikoaren eta parte-hartze politikorako eskubidearen alde jardutera. Oinarrizko eskubideek, izan ere, ezin dute egoera politikoaren arabera egon.

Bada garaia euskal herritar guztien eskubide guztiak bermatzeko Euskal Herri osoan. Agiria izenpetzen dugun sindikatuon iritziz, asmo ona eta aldarrikapen hutsa baino gehiago ere bada hori: gure irizpideen eta estrategien ardatza ere bada.

**ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU**



### Mikel Noval, Iraken aurkako erasoaz

# NAZIOARTEKO ORDENA BERRIAREN GERRA




**EE BBek eta Bretainia Handiak Iraken aurkako gerrari martxoaren 20an ekin ziotenetik milaka lagun hil dira, horien artean borrokan parterik ez zuen hainbat eta hainbat haur, gizon eta emakume, eta Iraketik heldu zaizkigun irudietan suntsipena da nagusi. Gizarte mugimendu eta beste sindikatuekin batera gerraren aurkako kanpaina antolatzen dabilen Mikel Novali elkarrizketa egin diogu egoera lazgarri honetaz.**

**–Zer gogoeta dakarkizu gerrak?**

–Lehena, gerra guztietan bezala, ondorioak biztanleria zibilak ordaintzen dituela, besteak beste Basoran, Hillan edo Bagdadeko azoka zein ospitalean gertatu diren sarraskiek adierazten dutenez.

Bestetik, itzelezko eraso hau dugu gerra hotzaren osteko munduko ordena berriaren eta globalizazio neoliberalaren adibidea: aldebatekoa eta interes ekonomikoen mende dagoena; Bushek irailaren 11ko erasoak aitzakiatzat hartu ditu joera hori behin betiko finkatzeko, eta iragarri duenez, litekeena da beste estatu batzuren aurka jotzeko asmoa ere izatea (Siria, Iran, etab.).

EE BBentzat Irakeko helburua ez da soilik munduko petrolio erreserbarik handienetakoa eskuratzea, boterearen inguruko jendearen mesederako beste negozio batzuk ere bai baitaude: oraintxe txikitu dutena berriro eraikitzea, telekomunikazio eta azpiegitura sareak osatzea, etab. Armak ekoizten dituzten enpresek gerran izandako arrakasta eta birrindutako helburuen argazkiak azpimarratuko dituzte bezero berriei eskaintzeko.

## ARMAK KENTZEA, AITZAKIA

**–Irak armen indarrez menpean hartzea arriskuak saihesteko omen da...**

–Bai, Bushek asmatu duen gerra prebentiboaren teoria berria onartezina da, baina nazioarteko legeria aplikatzeko formak ere bazter utzi dituzte, Nazio Batuak nabarmen utziz. Arma arriskutsuak indargabetzeko aitzakiarekin –eurenak baino bonba hilgarriagoak inork ez baditu ere– edozein bitarteko zuritu dute.

**–Gerra hasi denetik diktaduratik askatu nahi omen zuten herritarren egoera erabat okertu da. Zer irizten diozu?**

–Giza-laguntza ematen ari direla adar jotze hutsa da, lehenik dena apurtu, ura eta argia moztu eta gero janaria banatzen ari baitira. Gainera, azken hamarkadan irakiar asko eta asko kanpotik ekarritako jaki eta zerbitzuen mende zegoen, eta erasoa medio banaketa hori bertan behera geratu da.

**–Ba al dugu, bestalde, Irakeko berri zehatzik?**

–Ez dut uste, egunotan hedabideetan gezurra da nagusi. Bonbardatzen hasterako ere argudio eta datu faltsuak erabili zituzten, eta orain han dagoen ehundaka kazetari –horien artean Correo taldekoa– propaganda tresna bilakatu da, yankien armadarekin joatearen truke.

Era independentean dagoen lekuko oso gutxi dago, hala ETBko kazetariak, brigadistak etab. Errealitatearen islada txiki bat eurei esker daukagu.

Gero, bertoko komunikabideek, agentzien mende daudelarik, iristen zaizkien irudi eta albisteak hedatzen dituzte, baina tanke eta hegazkinen argazkiek arma horiek eragiten dituzten egoera larriak eta heriotza ezkutatu egiten dituzte.

**–Gerraren alde daudenek aurka gaudenoi Saddam Hussein diktadorearen alde gaudela diote...**

–Bai, horixe da gerrazaleek erabiltzen duten argudio faltsuetako bat; irakiar gehienek pairatuko duten gerraren aurka egotea ez da diktaduraren aldeko izatea. Saddam Husseinen erregimenari buruzko epaia oso garbi utzi genuen Europako Gizarte-Foroan egingenuen agirian. Guk Nazio Batuetako ikuskatzaileei sinesten diegu, eta hauek arma arriskutsuenak suntsitzeko aurrerapausoak egiten ari zirela ziurtatu zuten.

**–Bada itxaropenerako motiborik: Erantzuna mundu guztian ozena izan da, benetan.**

–Bai, aldebateko gerra honen aurkako protesta mundu mailakoa eta bateratua izan da, lehen aldiz. Hau munduko eta Europako gizarte-foroen lanari esker gertatu da, Florentzia eta Porto Alegren bildutako talde eta mugimenduok Irak erasotzeko asmoa salatu eta protesta antolatzen hasi baikinen. Pozteko moduko erantzuna jaso dute deialdi horiek, mundu guztian izandako otsailaren 15eko manifestazio erraldoiak eta Euskal Herrian martxoaren 25ean egin genuen lanuztea, batez ere.

Aipagarria da euskal mugimendu sindikalak gerraren aurka agertu duen konpromisoa, oraingoz honelako lanuzteak hemen eta Italian besterik ez dira deitu.

**–Zer egin dezakegu aurrerantzean?**

–Gure lehen nahia eta kezka gerra amaitzea, geldiaraztea da. Ezin dugu heriotza eta hondamendiaren jarraipena onartu. Horregatik mugitzen jarraituko dugu; halere, badakigu gerra eta militarismoaren izurria ez dela berehalakoan bukatuko. Ez dugu etsiko, ordea, eta bai hemen, bai beste edonon, gatazkak bideratzeko bakezko, politika eta demokrazian oinarritutako konponbideak lehenetsiko ditugu.






## Termómetro democrático

La declaración titulada "Por el derecho de participación política", suscrita por los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEE, EHNE e HIRU, responde a una coyuntura, que viene marcada por la ilegalización de Batasuna. Pero el documento va más allá, y establece lo que podríamos llamar un principio normativo, referencial, un termómetro para medir quién es quién en el escenario vasco.

**La coyuntura.** El documento se opone frontalmente a la ilegalización de Batasuna. Y sobre todo desenmascara la decisión política que está detrás de la ilegalización decretada por el *Tribunal Supremo*. Considera que el pacto antiterrorista, a cuyo dictado se ha hecho esta sentencia, pretende negar expresión electoral a un espacio arraigado en la sociedad vasca. Un espacio que comprende reivindicaciones y opciones compartida por amplios sectores de la sociedad vasca. A esa gravísima decisión política responden las amenazas que vienen realizando diversas instancias del estado, con el fiscal general a la cabeza: cualquier expresión política que ellos entiendan que pueda ser referente para el sector de la sociedad vasca que Batasuna ha representado será ilegalizada.

**El termómetro.** Los sindicatos firmantes, a partir de esa reflexión, entienden que no basta criticar puntualmente esa decisión política y judicial. Ni siquiera desenmascarar la estrategia de fondo. Si se pretede abrir otro escenario es preciso pisar tierra firme, hacer una opción fundamental. Así lo entienden cuando dicen que "todos los ciudadanos y ciudadanas vascas, en todo Euskal Herria, deben tener garantizados todos los derechos". No es sólo un deseo o una reivindicación, algo que deba caer del cielo o de la mano siempre de otros. Como dice el documento, se trata de un "eje normativo", es decir, el reglamento de que se dotan a sí mismas las organizaciones firmantes. Es la tierra firme en la que pueden apuntarse iniciativas de más alcance. Y es, como decíamos, un buen termómetro, pues permite ver qué talla da cada agente político en la carrera democrática.

Norma y termómetro: suena a constitución. En cuestión de democracia, no basta parecerlo.

**X. Anza**



# "HAY QUE FORZAR A ADEGI A UNA NEGOCIACIÓN REAL"

## José Mari Larrañaga, secretario general de la Federación del Metal

**Tras la jornada de huelga del pasado 21 de marzo, los metalúgicos guipuzcoanos han continuado con sus movilizaciones y paros. Esta semana han parado los trabajadores y trabajadoras del metal de las comarcas de Oria-Goierri, Urola-Kosta, Oarso-Bidasoa, Donostialdea y Deba y para los próximos días 10 y 11 de abril están previstos nuevos paros en todo el territorio. En todos los casos la convocatoria de huelga ha sido secundada por más del 80% de los trabajadores y trabajadoras afectados por el convenio, lo que ha sido valorado positivamente por el secretario general de la Federación del Metal, José Mari Larrañaga.**

**–¿Qué balance haces del desarrollo de las diferentes jornadas de huelga de esta semana?**

–El balance es muy positivo. A lo largo de la semana, esta vez por medio de convocatorias comarcales, lo que ha sido una nueva experiencia para nosotros, han vuelto a parar la gran mayoría de las empresas metalúrgicas guipuzcoanas. La convocatoria de paro ha sido secundada por más del 80% de los trabajadores y trabajadoras del sector afectados por el convenio, lo que debería hacer reflexionar a la patronal Adegi. A ello habría que sumar un número importante de empresas, que a pesar de no estar afectados por el convenio provincial, se han sumado a la convocatoria de paro. También se han llevado a cabo manifestaciones en todas las comarcas, en las que han participado miles de personas.

En este contexto, habría que señalar que, por primera vez, han parado también durante dos horas las cooperativas, ya que su jornada anual está sujeta al convenio provincial.

**–¿Cuál es la postura de Adegi?**

–Hay que decir que seguimos sin negociar con Adegi. La patronal guipuzcoana todavía no se ha sentado a hablar en serio del convenio y la mesa de negociación sigue sin arrancar, lo que muestra a las claras el talante que tiene esta patronal. Hace dos semanas nos presentaron una propuesta a la baja que recogía incrementos del 4,4% en tablas, con un mínimo garantizado del 3% y cero horas de reducción de jornada, al mismo tiempo que nos decían que nuestras reivindicaciones eran inasumibles. A partir de ese momento se retiraron de la mesa de negociación y no ha habido más contactos. Exigimos que se sienten a negociar.

**–El acuerdo, por tanto, está lejano.**

–En estos momentos no vemos factible un acuerdo con Adegi. Quieren que negociemos como en los años noventa, cuando estábamos inmersos en una profunda crisis. La realidad es que en los últimos años los beneficios empresariales han sido escandalosos y es hora de que una parte revierta en los bolsillos de la clase trabajadora. De ahí nuestro lema: "Gure txanda da".

Seguimos exigiendo incrementos salariales del 6,5% en tablas y reales, una reducción de jornada de 24 horas, 0,5% de aportación a Geroa y medidas contra la precariedad y la discriminación salarial con los jóvenes y las mujeres.

## Labur Breves...




### ● Otamendi explica el nuevo proyecto que sustituirá a Egunkaria

Martxelo Otamendi, director del clausurado Euskaldunon Egunkaria, ofreció una charla en Bilbao el pasado 2 de abril bajo el título "Prensa en euskara" organizada por la Fundación Manu Robles-Arangiz. Otamendi habló de las características que debería tener el nuevo proyecto periodístico euskaldun, al tiempo que analizó la poco normalizada situación de las publicaciones en euskera. Puedes suscribirte en el teléfono 943 30 35 55.

### ● Huelga en Tubacex Taylor

El medio centenar de trabajadores que componen la plantilla de Tubacex Taylor Accesorios iniciaron el 1 de abril una huelga indefinida ante la falta de voluntad negociadora de la nueva dirección de la factoría. La plataforma sindical se basa en la exigencia de una subida salarial del IPC+1 punto, una reducción de jornada de 16 horas y la renovación de los contratos eventuales. Los huelguistas han protagonizado también diversas movilizaciones en demanda de diálogo, así como para denunciar el deterioro de las relaciones laborales tras el cambio de dirección.




Franqueo concertado
n.° 08/207

ELA astekaria
Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00